



2012/11/19ko prentsa-oharra

ETXEBIZITZA BEHARREI ETA ESKARIEI BURUZKO INKESTA (EBEI) 2011

EAEko 18 urtetik 44ra bitarteko biztanleen % 11,4k lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dauka

Jabeen arabera, 75.342 etxebizitza birgaitu beharrean daude, hau da, lehen etxebizitzaren % 8,9

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak kudeatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko 2011ko inkestaren arabera, euskal familien % 4,5k etxebizitzaz aldatzeko beharra dauka -38.000 inguruk-; eta hamarretik ia batek (% 8,9k) adierazi du bere etxebizitzak birgaitze-lanen bat behar duela, eraikinaren elementu komunetan, nahiz, 3.000 eurotik gorakoak, etxebizitzan bertan.

18 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonen kolektiboak lehenengo etxebizitza eskuratzeko, 76.360 etxebizitza behar izango ziren 2011an Euskal Autonomia Erkidego osoa hartuta, hau da, aurreko urtean baino % 21,9 gutxiago. Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zenbatek duten kalkulatzeko baldintza gisa diru-sarrera propioak izatea jarri da.

2010etik 2011ra lehen etxebizitzaren eskaria % 45,5 jaitsi da Araban, % 25,2 Gipuzkoan. eta % 13,6 Bizkaian.

Diru-sarrerak dituzten 18 eta 44 urte bitarteko bizkaitarrek 46.808 etxebizitza eskatu dituzte 2011an -2010an baino 7.3549 gutxiago-; gipuzkoarrek, 21.246 - 7.151 gutxiago- eta lehenengo etxebizitza behar duren arabarrak 8.306 ziren 2011an, 2010an baino 6.940 gehiago.

Lehenengo etxebizitzaren bila dabilzan hamar eskatzailetatik sei baino gehiagok gurasoekiko emantzipazioa jarri dute arrazoi gisa -%65-, eta hirutik batek -% 33,3- lehenengo etxebizitza, ezkontzeko edo bikotekidearekin bizitzeko bilatzen du.

Lehenengo etxebizitza eskatu dutenetatik % 17,8k alokairua aukeratu du

Lehenengo etxebizitza eskatu duten 18 urtetik 44 urtera bitarteko biztanleen erdiak, (% 52,0k), jabetzan eskuratu nahi du; % 17,8k nahiago du alokairua, eta % 30,2k ez du ez sistema bat, ez bestea aukeratu.




ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Eskatzaileen kolektiborik garrantzitsuena 25 urte eta 34 urte bitartekoa da, % 14,7 dira 18 eta 24 urte bitartekoak, eta % 13,4 dira 35 eta 44 urteko bitartekoak

Behar den 1. etxebizitzaren ezaugarriak eta eskatzaileen profila.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011. %



(*) % 100era iristeko falta denak "Ez daki/Ez du erantzun" multzokoak dira.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko inkesta.

Etxebizitzaz aldatzeko beharra % 32,5 murriztu da azken urtean; eta birgaitzea % 6,9 jaitsi da.

Etxebizitzaz aldatzeko beharra ikaragarri jaitsi da, 38.048 etxebizitzaren jabeek ikusten dute behar hori, joan den urtean baino 18.000 gutxiago, eta familia guztiekiko % 4,5.

Bestetik, Etxebizitza birgaitzeko beharra, 75.342 etxebizitzaren jabeek ikusten dute; 2010ean baino % 6,9 gutxiagok.



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

ETXEBIZITZEN BEHARREI ETA ESKARIARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2011	Aldakuntza 2010. urtearen aldean	
			GUZTIRA	%
Euskal Autonomia Erkidegoa	Sartzea	76.360	-21.440	-21,9
	Aldatzea	38.048	-18.349	-32,5
	Birgaitzea	75.342	-5.627	-6,9
	Etxekoen unitateak	849.094	10.894	1,3
Araba	Sartzea	8.306	-6.940	-45,5
	Aldatzea	6.601	-1.911	-22,5
	Birgaitzea	7.829	-4.956	-38,8
	Etxekoen unitateak	125.864	2.264	1,8
Bizkaia	Sartzea	46.808	-7.349	-13,6
	Aldatzea	22.230	-5.064	-18,6
	Birgaitzea	38.649	-2.293	-5,6
	Etxekoen unitateak	451.890	5.490	1,2
Gipuzkoa	Sartzea	21.246	-7.151	-25,2
	Aldatzea	9.218	-11.373	-55,2
	Birgaitzea	28.864	1.622	6,0
	Etxekoen unitateak	271.341	3.141	1,2

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko inkesta.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Organo Estatistikoa

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.